

## ESKU-HARTZEEN IKUSPEGIA

### I. ESKU-HARTZEAREN KALITATEA (gehienez 43 puntu)

Esku-hartzeen **egokitasuna** baloratzeko, kontuan hartuko da, lehenik eta behin, testuinguruari buruz emandako informazioaren garrantzia eta gaurkotasuna, zer krisi zehatzi erantzun nahi zaion eta zerk eragin duen. Bigarrenik, esku-hartzearen identifikazioa nola egin den baloratuko da, hau da, biztanleek eta beste erakunde batzuek proposamena identifikatu eta formulatzeko prozesuan jokatu duten rola, bai eta hura abian jartzeak bai erakundeentzat bai biztanleentzat eta haien ingurukoentzat ekar ditzakeen arriskuak kontuan hartu diren ere. Horrela, esku-hartzeak erakundeen eta langileen segurtasuna arriskuan jartzea, dauden gatazkak sakontzea edo berriak sortzea edo lehendik zeuden arrakalak edo desberdintasunak areagotzea saihestuko da. Hirugarrenik, honako alderdi hauek baloratuko dira: printzipio humanitarioen aplikazioa, hori ahalbidetu edo eragozten duten baldintzetan oinarrituz; proposamena nazioarteko, nazioko edo tokiko balizko erantzun humanitarioekin bat datorren; toki berean esku hartzen ari diren beste eragile batzuekiko koordinazioa eta ekimena entitate onuradunaren eta tokiko bazkidearen plangintza humanitarioen barruan sartzen den. Azkenik, biztanleen identifikazio zehatza, hautatzeko irizpideak eta ahultasunen eta gaitasunen azterketa baloratuko dira; hori guztia xede-talde bakoitzaren espezifikotasunen arabera egingo da.

**Koherentzia**-irizpidearen esparruan, aukeratutako esku-hartzearen justifikazioa eta aurretik ikasitakoa barneratu den baloratuko dira. Era berean, proposamenak erakundeen plangintza humanitarioarekin duen koherentzia aztertuko da (bai entitate onuradunaren plangintzarekin, bai tokiko bazkidearenarekin), baita esparru logikoaren matrizea osatzen duten helburu, emaitza, adierazle eta jardueren arteko koherentzia ere.

**Bideragarritasunari** dagokionez, erakundeek behar bezala gauzatu ahal izateko giza baliabideak, baliabide teknikoak, materialak eta metodologikoak eduki beharko dituzte. Ezarpenean, tokiko baliabideak lehenetsiko dira, bai eta tokiko langileak kontratatzea ere, ekimenak ekonomia bultzatzen lagundu dezan eta tokiko gaitasun profesionalak eta instituzionalak indartu ditzan, tokiko lidergoen aldeko apustuari jarraituz. Gainera, esku-hartzeak gatazka-testuinguruetan egiten direla kontuan hartuta, tokiko segurtasun-alderdiak zaindu beharko dira eta langile humanitarioek arlo hori ezagutzeko eta prestakuntza izateko neurriak hartu beharko dira.

### II. ZEHARKAKO IKUSPEGIAK BARNERATZEA (gehienez 40 puntu)

#### 1. Tokiko gaitasunak sendotzea eta ahultasuna murriztea, konektagarritasun-irizpideekin

Tokiko biztanleek, erakundeek eta instituzioek krisiari aurre egiteko ezagutzak, tresnak, baliabideak, prozedurak eta estrategiak dituzte. Gaitasun horiek indartzea ezinbestekoa da komunitateak erresilienteagoak izatea sustatzeko eta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetz) hartutako konpromisoarekin bat, laguntza humanitaria lokalizatzeko prozesuan aurrera egiteko. Ondorioz, esku-hartzeek honako elementu hauek izatea baloratuko da:

- Tokiko biztanleen, tokiko bazkideen, agintari publikoen edo entitate onuradunen gaitasun teknikoak eta estrategikoak indartzeko eta osatzeko, eta horien lekua hartzea saihesteko ekintzak.
- Tokiko baliabide materialak eta giza baliabideak erabiltzea.

- Berehalako beharrei erantzuteko jarduerak epe ertain edo luzerako beste batzuekin lotzea, irteera-estrategiak aurreikusiz.

## **2. Biztanleen partaidetza**

Tokiko biztanleek ezagutzen dituzte ondoen beharrak eta haiek dira krisiari erantzuten dioten lehenak. Haiek parte-hartzeak esku-hartze humanitarioei sarbidea errazten die, segurtasuna areagotzen du eta esku-hartzeen iraunkortasuna indartzen du. Parte-hartzea aniztasunean oinarrituz sustatzeak partzialtasuna eta diskriminazioa saihesteko bermatzen du. Ildo horretan, esku-hartzeek honako elementu hauek izan behar dituzte:

- Xede-biztanleriak dauden espazioetan (instituzionalak, tradizionalak, formalak edo informalak) duen parte-hartze mailaren azterketa.
- Biztanleek esku-hartzean parte har dezaten sustatzeko jarduerak.
- Parte-hartzea ahalbidetu eta sustatzen duten, inguruan dauden lidergoak eta parte-hartzeko moduak errespetatzen dituzten eta errealitate soziokulturalera egokitzen diren metodologiak.
- Kolektibo espezifiko batzuek –hala nola emakumeek, adinekoek edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak– parte hartzeko neurri espezifikoak.
- Proposamenaren egokitasunari buruz kontsultatzeko, kezak jasotzeko eta hobetzeko proposamenak sartzeko tresnak, bai eta esku-hartzearen emaitzak itzultzeko tresnak ere.

## **3. Giza eskubideak: babesa, lekukotza eta bakea eraikitzea**

Ekintza humanitarioaren helburua erkidegoak babestea eta haiei laguntzea da. Horregatik, esku-hartzeek eskubideen errespetua bermatu behar dute, giza eskubideen eta errefuxiatuen arloko tresna juridikoei eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari jarraituz. Era berean, «ez kaltetzeko» printzipioa errespetatu behar du, konpondu nahi den kaltea baino handiagoa ez eragiteko. Ildo horretan, esku-hartzeek honako elementu hauek izan behar dituzte:

- Eskubideen urraketa-egoeraren azterketa.
- Eskubideen titularrek beren eskubideak aldarrikatzeko eta betebeharren titularrek eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko dituzten gaitasunak indartzeko jarduerak.
- Lekukotzak bildu eta eraginak zehazteko jarduerak herritarrak kritikoak izatea sustatu behar dute, baita maila lokal, nazional eta nazioartekoan aktibo izatea ere, konektatua egoteko eta hainbat mailatako proposamenak egiteko.
- Komunitateen arteko elkarrizketa sortzeko gizarte- eta kultura-jarduerak, bizikidetzak eta bakearen eraikuntza hobetzen laguntzeko.

## **4. Genero-berdintasuna**

Esku-hartze humanitarioak ez dira neutroak generoaren ikuspegitik, eta, beraz, genero-desparekotasunak areagotzea saihesteko aukera bat dira, baita murriztu ahal izateko ere. Helburu hori lortzeko, esku-hartzeek honako elementu hauek izan behar dituzte:

- Emakumeen eta gizonen egoeraren eta posizioaren berri emateko genero-diagnostikoak.
- Analisisetan eta biztanleen aukeraketan datuak bereizita jasotzea.
- Nesken eta emakumeen behar praktikoei eta estrategikoei erantzuten dieten jarduerak.
- Emakumeei eta neskentzako jarduera espezifikoak edo haientzat egokitutakoak.
- Emakumeen parte-hartzea bermatzeko mekanismo espezifikoak, haien aniztasunean oinarrituta, bai esku-hartzea abian jartzerakoan, bai erabakiak hartzerakoan (identifikazioa, gauzatzea eta ebaluazioa).

Emakumeen erakundeekin eta haien behar eta eskaerei erantzuten dieten laguntza-taldeekin aliantzan aritzeak esku-hartzeetan ikuspegi hori txertatzen lagun dezake.

## **5. JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA**

Esku-hartze humanitarioek ingurune naturalean inpaktu negatiboak eragin ditzakete eta, horien ondorioz, biztanleen ahultasunak larriagotu. Ondorio horiei aurre egiteko, ekimenek honako elementu hauek izan behar dituzte kontuan:

- Ingurumen-egoeraren analisia.
- Esku-hartzeak ingurunean dituen eragin negatiboen identifikazioa.
- Esku-hartzearen inpaktu negatiboak arintzeko jarduerak.
- Esku-hartze eremuan baliabideak kudeatzeko mekanismo instituzionalak: hondakin solidoak eta hondakin-urak husteko sistemak, eraikuntzetan eta azpiegituretan tokiko materialak eta material jasangarriak erabiltzea, elikagaiak tokiko merkatuetan erostea, baratze ekologikoak ezartzea eta ingurumena errespetatzen duten diru-sarrerak sortzeko jarduerak, erregaien eta pestiziden erabilera arrazionala...

Erakunde ekologistekin eta ingurumenaren aldekoekin egindako aliantzak egiteak esku-hartzeetan ikuspegi hori txertatzen lagun dezake.

## **III. ENTITATE ONURADUNA (gehienez 6 puntu)**

eLankidetzak honako hau hartuko du kontuan entitate onuraduna ebaluatzeko: plangintza estrategiko humanitarioa duen ala ez, esparru horretan azken urteetan izan duen esperientzia, maila instituzionalean genero-politika txertatu duen eta esku-hartzeak arlo humanitarioan antolakuntza-gaitasuna indartzeko jasotzen dituen ekintzak, bere lan-dinamiketan eta -estrategietan zeharkako ikuspegiak barneratzeari eta kontu-ematea hobetzeari begira. Ekintza humanitarioko estrategien kasuan, entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoitzatik ezarri beharreko plan estrategiko bat izan beharko dute.

## **IV. TOKIKO BAZKIDEA (gehienez 11 puntu)**

eLankidetzak esku-hartzea gauzatzen duten entitateak tokikoak izatearen aldeko apustua egiten du, eta arlo horretan plangintza estrategiko bat izatea baloratzen du. Gainera, eLankidetzak azken urteetan esku-hartze humanitarioetan izan duten esperientzia aztertuko du, baita maila instituzionalean genero-politika txertatu duten ere eta, kasuan-kasuan, esku-hartzeak barne hartzen dituen antolamendua

indartzeko ekintzak. Tokiko erakundeen gaitasun humanitarioen indartzea integrala izan daiteke eta hainbat motatako ekintzak barne hartu ahal izango ditu, adibidez: politikak eta plangintza egiten laguntzea, lidergoa eta kudeaketa sustatzea, gaitasun teknikoak indartzea, zeharkako ikuspegietan sakontzea... Ekintza humanitarioko estrategiek tokiko bazkideak indartzeko jarduerak barne hartu beharko dituzte nahitaez.